

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittor Garaigordobil Berrizbeitia

*Abadiño,
Bizkaia
(1915-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Amaitermin auzoan jaio zen 1915. urtean. Udalerri Abadiño izan arren, elizaz Otxandiori dagokio beraien auzoa. Aita bertakoa zuen eta ama Arrazolakoa. Hamar neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Abade izateko erabakia hartu eta hamahiru urte zituela Arteako seminariara joan zen. Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala ibili zen soldadu. Euskal Herrian zein Espainia aldean ibili zen, betiere derrigortuta; Bilboko "libertadore" bat dela ere gogoratzen du ironikoki. Gerraostean, Gasteizko seminarioan egon zen, ikasle zein irakasle. 1948an Ekuadorrera joan zen misioetan eta 1982. urtean bueltatu zen bere jaioterrira, Urkiolako santutegira, hain zuzen ere. 97 urte bete berritan egon ginen berarekin eta ia azken mendeko berri eman zigun.

Zintak

ABD-023

- **Proiektua:** Abadiñoako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-26
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

ABD-024

- **Proiektua:** Abadiñoako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-11-26
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Amaiterminekoek Otxandilogaz zuten hartu-emona

- **Erref:** ABD-023/002
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>10 neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Ama Arrazolakoa zuen eta umetan han egoten zen sasoi batez, hurrengo umea jaio zenean. Amaitermin auzoa Abadiñon egon arren, Otxandilogaz izan dute beti hartu-eman gehiago. Elizaz Otxandiori dagokio Amaitermin auzoa. Umetan ez ei zekien Abadiño non zegoen. Amaitermin toponimoaren esangurari buruz ere dihardu.</p>

2. Amaitermingo eskola

- **Erref:** ABD-023/003
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Amaitermingo eskola txikian hainbat auzunetako neska-mutikoak batzen ziren, 50 ume inguru Amparo Zabala maistra gipuzkoarragaz.

3. 12 urtegaz seminaria joateko erabakia

- **Erref:** ABD-023/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Txikitan nahikoa okerra omen zen Bittor. 12 urte bete zituenean, seminaria joateko asmoa azaldu zien gurasoei, baina beste urtebetez egon zen etxean. Arteko seminaria joan zen 13 urtegaz. Ordura arte ez zuen aparte hartu-emanik abadeekin eta ez zen elizara asko joatekoa. Seminarista zela oporretan egunero joaten zen Otxandiora mezara.

4. Gasteizko seminarioan egoera okertu

- **Erref:** ABD-023/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:14:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Arteako seminariora joan zen 13 urte gaz. Gero Gasteizera joan zen eta han miseria asko ezagutu ei zuen, batez ere gerraostean. Denboraldi luzez antxoak jan zituztela du gogoan. Gerra garaian gauzak asko okertu ziren.

5. Gerran "kamillero"

- **Erref:** ABD-023/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasi zenean, etxetik entzun zitzaketen kanpoko tiro-hotsa eta gainerakoak. Bere edadeko gehienak eta zaharrenak hartu eta Gasteizera eraman zituzten. Abadiñoko udaletxean izandako errakuntza bat tarteko, urtebete beranduagoko kintan joan zen soldadu. Abadegaia zenez, osasungintzan ibili zen, armekin barik "kamillero" bezala.

6. Emakume batez abusatu zuen soldadua fusilatu

- **Erref:** ABD-023/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala eroan zuten frontera. Burgosen zuten kuartela eta bertara eraman zituzten. Baina handik hiru egunetara frontera eraman zuten. Dimatik Otxandiora zegoen abiazio-zelaira etorri ziren. Francok Afrikatik ekarritako mairuak ere bazeuden bertan. Horietako batek emakume batez abusatu omen zuen eta bere kideek fusilatu zuten.

7. Burdinazko gerrikoa apurtu zutenekoa

- **Erref:** ABD-023/010
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:19:21. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala eroan zuten frontera. Dima eta Otxandio artean egon eta gero Orduña aldera joan zen.

Alemaniarren abioiak ziren onenak, baina kanoiak italiarrenak ziren onenak erasotzeko. Handik Bizkaia hartzeko frontera pasatu ziren. Goikoetxeak, burdinazko gerrikoa egin zutenetako batek, pasatutako planoak erabili zuten Francoren aldekoek. Bittor ere haiekin ibili zen, betiere derrigortuta, ez zuen eta beste aukerarik izan. Bera Bilboko "libertadore" bat dela aipatzen du ironiaz. Bertokoek zuten abioi bakarra "El abuelo" izenekoa zen, indar gutxikoa. Burdinazko gerrikoa barik, lastozko gerrikoa zela dio.

8. Frontean gauza gogor asko ikusitakoa

- **Erref:** ABD-023/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:21:38. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Bilbo hartu zutenean, Santo Domingotik gora hildako asko ikus zitezkeen. Santander eta Oviedotik Galiziaraino joan ziren. Riañon denbora askoan egon zen. Gauza gogor asko bizi eta ezagutu zituen.

9. Teruel, Lleida eta Cuencako fronteetan

- **Erref:** ABD-023/013
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Bizkaitik Galiziaraino joan ostean, Nafarroan egon ziren hilabetez Teruel, Lleida eta Cuencara joan aurretik. Horietan bizi izandakoak kontatzen ditu, Terueleko kanposantuan Abadiñoko seme bat hil zenekoa, adibidez. Cuencan jakin zuten gerra bukatu zela eta zuzenean etorri ziren etxera.

10. Otxandioko bonbardaketatik ihesi

- **Erref:** ABD-023/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean Bittor Otxandion zegoen, ez seminarioan. Otxandioko bonbardaketako lekukoa da, Andikonako plazan bonbak bota zituztenekoa. Oletako basoetatik lortu zuen etxera onik bueltatzea.</p>

11. Mola Franco baino gogorragoa zen

- **Erref:** ABD-023/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

1936an, gerra hasieran, bonbardatu zuten Otxandio. Neguan barealdia izan eta gero 1937an berriro hasi ziren gogor erasotzen. Bitorren anaia ere orduan hil zuten, traizio bat tarteko. Errekete nafarrak oso gogorrak ziren. Mola Franco baino gogorragoa zen, hasieran Franco ez baitzen izan gerraren buru izateko hautagaia. Mola abioi istripu batean hil zen.

12. Salaketen ondorioz hildakoak eta kartzelaratuak

- **Erref:** ABD-023/016
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra garaian, ezinikusien ondorioz, kartzelaratu eta hil zituzten hainbat lagun. Auzokoen edo herrikoen arteko salaketa asko egon ziren herri askotan.

13. Gerraostean seminaria bueltan

- **Erref:** ABD-023/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:32:39. **Bukatu:** 00:34:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Lleidan bizi izan zuen arrisku gehien. Cuencan zeudela bukatu zen gerra, Madril hartu eta gero. Gerraostean seminaria bueltatu zen, azterketa baten bitartez galdutako ikasturtea berreskuratuz. Hainbat postu izan zituen seminarioan: irakasle, prefektu eta Gogarte Etxeko (gaztelaniazko "Casa de Ejercicios") zuzendari. Han egon zen 1948an misioetara joan zen arte.

14. Lauzirika gotzainak egindako ekarpena

- **Erref:** ABD-023/019
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Gasteizko seminarioko irakasle zela On Joxe Miel Barandiaran izan zuen lankide. Lauzirika gotzainak asko lagundu zion seminarioari.

15. Gasteizko Gogarte Etxean

- **Erref:** ABD-023/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:37:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Gasteizko seminarioko irakaslea izan zen Bittor, ordezkapenak egiten ibili zen. Bertako abade batek Gasteiz inguruko elizetan erretiroak emateko ardura zuen eta hura ordezkatzeko bidali zuten Gogarte Etxera (gastelaniazko "Casa de Ejercicios"). Gero Donostiako Ulia mendiko gogarte-etxean ere egon zen.

16. 1948an Ekuadorrera misiolari

- **Erref:** ABD-023/024
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gasteizko seminarioko abadegai gehienak arabarrak ziren, baina gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ere bazeuden. 1948an misioetara joateko aukera izan zuen Bittorrek, eta hainbat aukera aztertu ostean Ekuadorrera joan zen beste abade batzukaz batera.

17. Ekuadortarrek erlijioa zelan bizi zuten

- **Erref:** ABD-023/025
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:44:37. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Joan aurretik pentsatzen zuten bertako jendea ez zela fidela, beraien moduan pentsatzen ez zutenak ez zirela benetako eliztarrak. Adibidez bataioetan sekula ez zuten amarik ikusten

umearen ondoan, besteak beste. Hainbat adibide aipatzen ditu. Erlijioaren kontzepturik sakonenak ondo barneratuak zituzten; heriotza baten aurrean elkarri barkamena eskatzen zien, esate baterako.

18. Ekuadortarrak eta ezkontzak

- **Erref:** ABD-023/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:50:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Gutxi ziren ezkonduak eta andre bakarragaz bizi zirenak.

19. "Beraien erlijioa beraien modura" zuten Ekuadorren

- **Erref:** ABD-023/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:50:37. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Modu desberdinean bizi zuten han erlijioa. Beraien erlijioa beraien modura zutela dio Bittorrek. Elizbarrutiko misioak ere guztiz aldatu dira, izena baino ez dute mantendu bere iritziz.

20. Aita Santuak eta kontzilioak

- **Erref:** ABD-023/029
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:54:08. **Bukatu:** 00:57:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bi Aita Santurekin egon da Bittor, Pablo VI.arekin eta Juan Pablo II.arekin. Pio XII.a ere ikusi zuen, baina sekula ez zen beragaz egon. Lehen kontzilioa Juan XXIII.ak iragarri zuen eta kontzilioa denboran Pablo VI.ak lau moderatzaile izendatu zituen. Beretzat handiena Pablo VI.a izan zen, baina gero beldurra sartu omen zitzaion.

21. Fedea vs Eliza

- **Erref:** ABD-023/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:57:27. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Fedea sinesmena izatea da, ez du Elizarekin zerikusirik. Jende asko agnostikoa da: fedea du, baina ez daki Jaungoikoa zelakoa den. Jesukristorena ere misterio handia da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com